

I - ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

GIZARTE ZERBITZUEN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 50/2014 Foru Dekretua, urriaren 7koa, aldatzen duena uztailaren 22ko 36/2014 Foru Dekretua, zeinek arautu zuen mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere

Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 22ko 36/2014 Foru Dekretua, zeinak arautzen baitu mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere, bat dator, arreta goiztiarrari dagokionez, arreta goiztiarraren arloko esku hartze integralari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko araudiaren zirriborroan dauden aurreikuspenekin. Diziiplina anitzeko esparruan, hezkuntza sistemak, osasun sistemak eta gizarte zerbitzuen sistemak ematen dute laguntza hori, eta 6 urteko adin muga ezarri da diziiplina anitzeko zerbitzu hori eskuratzeko.

Oraindik eztabaidatzen eta izapidetzen ari den EAEko araudi horrek lehenik baden errealitate bat antolatu eta koordinatzea du helburu nagusia. Izan ere, orain arte hezkuntza sistemak, osasun sistemak eta gizarte zerbitzuen sistemak eman diete arreta goiztiarra garapenaren arazoak dituzten edo horiek jasateko arriskuan dauden haurrei, 6 urte betetzen dituzten arte. Zerbitzu, programa eta jarduketan sare oparo eta konplexu batek eskaini izan du laguntza hori. Funtsezko aurrerapenak bermatu dituzte azken bi hamarkadetan, baina bakoitzak bere aldetik egin dute, sistemen arteko beharrezko koordinaziorik eta lankidetzarik gabe. Hauxe da hain zuzen ere EAEko etorkizuneko araudiaren xede nagusia: garapenaren arazoek alderdi asko dituztenez gero, arreta goiztiarrerako diziiplina arteko esparrua eskaintzea, horretan ari diren hiru sistemetariko —gizarte zerbitzuak, hezkuntza sistema eta osasun sistema— bakoitzak izango dituen balorazio eta esku hartze eginkizunak zehaztuz, bai eta haien arteko lankidetzaren eta koordinazioaren antolaketa ere.

36/2014 Foru Dekretua bat dator EAEko araudiaren aurreikuspenekin Arabako Foru Aldundiak aurrea hartu nahi izan diolako EAEko araudi horren onarpenari, itxuraz ia batera indarrean jarri behar ziren bi arauen arteko koherentzia bermatzearen. Diziiplina arteko izaera hori eta eskumen partekatu hori eman nahi ditu aditzera 56. artikuluko 2. paragrafoak, hau dioenean: "Artikulu honetan araututakoa gizarte zerbitzuen foru sareak arreta goiztiarraren esparruan egin behar duen jardunean aplikatuko da; nolana ere, beharizanen arabera gerta liteke ondoko hauek ere jardun behar izatea: hezkuntza sistemak eta osasun sistemak, arreta goiztiarra interdiziplinarra baita —osasuna, hezkuntza eta gizarte—".

EAEko araudiaren onarpenari aurrea hartze horrek eragin lezake, ordea, 56. artikulua interpretazioa behar bezain ondo ez egokitzea Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen duen arreta goiztiarreko zerbitzuaren egungo eta etorkizuneko eremuari. Beharrezkoa da, beraz, segurtasun juridikoa izateko, egoera hori argitzea, esanez 56. artikuluan ezarritakoa ez dela aplikatuko EAEko araudia indarrean jarri arte, eta trantsizio aldi —hau da, 36/2014 Foru Dekretua indarrean jartzen denetik EAEko araudia indarrean jartzen den arte— Foru Aldundiak jarraituko duela orain arte bezala arreta goiztiarreko zerbitzua eskaintzen 0-3 urte bitarteko umei.

Egoera hori argitu eta araubide iragankor hori ezartzea da foru dekretu honen helburua.

Arabako Foru Aldundiaren antolaketari, funtzionamenduari eta lege araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren bidez Diputatuen Kontseiluari eman zaio foru arauak eta autonomia erkidegoetako eta Estatuaren legeak garatzeko araudiak emateko ahalmena.

Horregatik, Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatuak proposatuta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseilua jakinaren gainean jarrita eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu eta gero, hauxe

XEDATZEN DUT:

LEHENENGOA. Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 22ko 36/2014 Foru Dekretua aldatzea. Foru dekretu horrek mendetasun egoera aitortzeko, ezintasuna kalifikatzeko eta garapenaren arazoak edo horiek jasateko arriskua aitortzeko prozedura arautzen du, bai eta, baldintza horiek emanez gero, Arabako gizarte zerbitzuak eta diru prestazioak jasotzeko eskubidea eta prozedura ere. Hona aldaketak:

Bat. Aldatu egiten da 1. artikuluko 1. idatz zatiko a) paragrafoko hirugarren gidoia. Testua honela geratuko da:

“- 6 urteko edo adin horretatik beherako neska-mutilen garapen nahasmendua edo halako nahasmendua edukitzeko arriskua aitortzea. Hori ez da eragozpen izango seigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa aplikatzeko, 3 urtetik gorako eta gehienez 6 urteko adina duten neska-mutilek garapen nahasmendurik duten edo halakorik edukitzeko arriskua duten baloratzeko eskubidearen eraginkortasunari dagokionez”

Bi. Aldatu egiten da 1. artikuluko 1. idatz zatiko b) paragrafoko hirugarren gidoia. Testua honela geratuko da:

“- 6 urteko edo adin horretatik beherako neska-mutilek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak gizarte zerbitzuen foru sarearen bidez ematen duen arreta goiztiarreko zerbitzua jasotzeko eskubidea. Hori ez da eragozpen izango seigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa aplikatzeko, 3 urtetik gorako eta gehienez 6 urteko adina duten neska-mutilek zerbitzu hori jasotzeko eskubidearen eraginkortasunari dagokionez eta adin tarte horretan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bere gain hartzen dituen esku hartzeen izaerari dagokionez”

Hiru. 6. idatz zatia gehitzen zaio 32. artikuluari. Hauxe dio:

“6. Artikulu honetan ezarritakoa seigarren xedapen iragankorrean ezarritakoari loturik egongo da, 3 urtetik gorako eta gehienez 6 urteko adina duten neska-mutilek garapen nahasmendurik duten edo halakorik edukitzeko arriskua duten baloratzeko eskubidearen eraginkortasunari dagokionez”

Lau. 3. idatz zatia gehitzen zaio 56. artikuluari. Hauxe dio:

“Artikulu honetan ezarritakoa seigarren xedapen iragankorrean ezarritakoari loturik egongo da, 3 urtetik gorako eta gehienez 6 urteko adina duten neska-mutilek Gizarte Urgazpenerako Foru Erakundeak ematen duen arreta goiztiarreko zerbitzua jasotzeko eskubidearen eraginkortasunari dagokionez eta adin tarte horretan Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak bere gain hartzen dituen esku hartzeen izaerari dagokionez”

Bost. Seigarren xedapen iragankorra gehitzen da. Hauxe dio:

“Seigarren xedapen iragankorra. Garapen nahasmendurik dagoen edo halakorik edukitzeko arriskua dagoen baloratzeko eskubidearen eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen duen arreta goiztiarreko zerbitzua jasotzeko eskubidearen eraginkortasuna.

Hiru urtetik gorako eta gehienez 6 urteko adina duten umeen kasuan, garapen nahasmendurik dagoen edo halako nahasmendua edukitzeko arriskurik dagoen baloratzeko eskubidea eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen duen arreta goiztiarreko zerbitzua jasotzeko eskubidea eraginkor bihurtuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko arreta goiztiararen arloko esku hartze integralari buruzko araudia indarrean jarritakoan, arlo horretan diharduten hiru sistemetan araudi hori modu eraginkorrean ezarri bezain laster.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ematen duen arreta goiztiarreko zerbitzua jasotzeko eskubide hori dela medio, gizarte zerbitzuen sistemak arreta goiztiarraren arloan berezkoak dituen esku hartzeak jaso ahal izango dira, Foru Aldundiaren eskumenen esparruan, Gizarte zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legean ezarritakoarekin bat, eta EAEko Gizarte Zerbitzuen Sistemako prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko etorkizuneko dekretuan eta Euskal Autonomia Erkidegoko arreta goiztiarraren arloko esku hartze integralari buruzko etorkizuneko araudian zehaztu beharreko eginkizunen esparruan. Esku hartze horiek, kasua bada, osatu egingo dituzte arreta goiztiarraren arloan adin tarte horretarako hezkuntza sistemaren eta osasun sistemaren eskumenekoak gertatzen diren esku hartzeak”

BIGARRENA. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

HIRUGARRENA. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzeko agintzen da.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko urriaren 7a

Diputatu nagusia

JAVIER DE ANDRÉS GUERRA

Gizarte Zerbitzuen Saileko foru diputatua

MARTA ALAÑA ALONSO